

ESNATZERAKOAN (*)

Donostia, 1990-I-26

Antton Kazabon

ESNATZERAKOAN

Doinua: Betroiarena.

1

Zintzarri hotsarekin
berriro mundura,
jaikitzeke ordua
azkar heldu da,
bukatu da gaueko
ametsen lilura,
ezin esnaturikan
betiko modura,
hainbat duda-muda
eta arrenkura,
ideiak burura:
Hau, hori ta hura.
Komunera nihoak
hau pixagura!

2

Gaua gertatutzen zait
benetan murrizta
eta jaiki beharra
hau duk langintza!
Ireki eta itsi
begiak dabiltza,
behin eta berriz tinko
barrua zait mintza:
—Hola al zabiltza?
Entzun nire hitza
nahi baduzu ditxa
hona hemen giltza:
Estima eta goza
zazu bizitza—

3

Zakur zaunkak aurrena
datoz belarrira
eta begietara
argi dizdira,
dagoeneko norbait
lanean ari da
tirriki-tarra hotsak
entzuten bait dira;
ordua begira
nahi nuke sikira
hirurak balira!
Ta berriz naiz jira
tapakipean sartuz
ohe erdira.

4

Burukia hartuta
masailaren kontra
postura egokian
berriz naiz koka,
jaiki-ez jaiki honek
utzitzen nau jota
ta gelditzea ez zait
batere inporta,
gustora nago-ta
niretzat bikoka
hau duk hau konforta!
Mantarik ez bota,
lantegian gaur ere
a zer porrota!

(*) *Xenpelar* bertso paperen saria. Hirugarren saria.

5

Gauari hartu diot
 ustetan topea
 halere jaikitzeo
 nabil torpea,
 falta zait animoa
 ta borondatea,
 bertan gelditzen banaiz
 niretzat kaltea,
 amaituz epea
 hobe irtetea,
 altxa ta pakea,
 baina hau nekea!
 Zenbat maite zaitudan
 ohe maitea!

6

Maindirezko kate hau
 lotura epela
 baina jartzen nau triste
 eta goibela,
 zergatikan ote naiz
 hain kristau motela
 eta gizatasunez
 eskas ta ustela?
 Entzun hau bestela:
 Maite dut sabela
 betetzen sakela
 hornituz pardela,
 jakinik lur hezeak
 jango nauela.

7

Burua ilun eta
 odolak irakin
 kanpoan argi eta
 ni esna ezin,
 zertan egiten diot
 egunari muzin?
 Baikor izan nahi nuke
 ta nola ez jakin,
 behar diot ekin
 eta jokatu fin,
 dezadan ahalegin!
 helburu batekin:
 argitu nadin egun
 sentiarekin.

8

Oierren esku-oinak
 ta masail guriak,
 Ekainen irrintzi ta
 dantza-aldiak,
 Morroskaren irudi
 ta begi handiak
 nirekin dauzkat beti
 hiru aurpegiak;
 nahiz eta erdiak
 hor nire egiak
 poz eta zoriak
 gaueko argiak,
 sendatzen dizkidate
 nire zauriak.

9

Orain beste erdiak
 daitezen guziak,
 hautsiz gauaren muga
 eta hasiak:
 Ez al nau behar Euskal
 Herri nahasiak
 zelai ta sorotzeko
 malkar ta sasiak?
 Ahantz ahuleziak
 ta nagi-auziak
 bazter maleziak
 Jaunari graziak;
 jaiki nadin merezi
 du ta biziak!

10

Gaur ere jaikitzeo
 zenbat gogoeta!
 horretarako erre
 behar dut beta,
 nahikoa egondu naiz
 ohean gordeta
 beraz buka dezadan
 gaurko berriketa,
 gaintituaz seta
 jaiki naiz eseka
 lo gozoz aseta,
 non neukan arreeta?:
 Berriz ohera noa
 jaia da eta.